

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Areatzako Udala****2018ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga**

Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Tibutu Foru Arau Orokorraren 100.3 artikuluan xedatutakoa betez, Iragarki honek herri-jakinazpenaren ondorioak izango ditu Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Zerga Areatzako Udalean ordaindu behar duten zergadunentzat, eta apirilaren 24ko 45/2018 Alkate Dekretu bidez, 2018ko ekitaldiko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Errolda onartu dela.

Aipatutako Errolda Udal honetako Iragarki Taulan 15 egunen bitartean geratzen dela erakusgai, interesatuek aztertu ahal izateko eta egoki deritzen erreklamazioak jarri ditzaten.

Era berean, udal zerga hau ordaindu beharrean dauden udalerrri honetako herritarrei zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalduko dela jakinarazten zaie, ondoren azaltzen diren era, epe eta tokietan.

**1. Borondatezko ordainketa, gainkargarik gabe**

a) *Ordaintzeko epea*: Zergaren zenbatekoa, 2018ko ekainaren 15etik abuztuaren 15era bitartean, biak barne, ordain daiteke gainkargarik gabe.

b) *Ordaintzeko tokia eta era*: Helbideratu gabeko ordainketetan, zergadunei etxera helaraziko zaien inprimakiak aurkeztuz:

- BBKren edozein bulegotan, Areatzako Udaleko kontu zenbakian sartuz.
- Areatzako Udeletxean, goizeko 10:00etatik 14:00etara.

Inprimaki hauek jaso ez arren, ordainketarako beharra ez da desagertuko.

**2. Betearazteko ordainketa, gainordainarekin**

Borondatezko ordainketa epea igarota, zuzenean betearazpen bideari ekingo zaio, dagokion gainordainarekin gehi berandutze interesekin, kostuak eta prozedura-gastuekin, betiere 2/2005 Foru Arauaren 28. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

**3. Errekurtsoak**

Ibilgailuen Udal Erroldaren barruan sartzea edo kanpoan uztea, era akatsdun batez, edo tarifak esleitzea, eta abar... euren kalifikazioei buruzko akatsengatik egin bada, Udal honen Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean birjarpeneko errekurtsoa jarri ahal izango da, Iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean. Aipatutako errekurtsoa jartzeak ez du prozedura eteten, eta betearazpidea hasiko da epealdia bukatzerakoan, eteteko eskabidea bereriaz egin ezean, abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 13. artikulua eskatzen dituen betekizunak betetzen direla egiaztatuz.

Areatzan, 2018ko apirilaren 24an. — Alkatea, Asier García Artetxe